

Merkatuko liderra da Euskadin, % **47ri** hurbiltzen zaion BGAE banakako sistemaren bidez **kudeatutako ondare**-kuotari esker

Kutxabank taldeko Baskepensionesez urte amaierako aurreikuspen-kanpainari ekingo dio

- **Errentagarritasuna** iraileko itxieran, ondare handiena duen planaren % **6,01** (profil kontserbadoreagoa) eta agresiboenaren % **16,29** artean dago, azken hori inbertsio-epealdi luzeagoetarako gomendatua
- **Baskepensiones** BGAEren ondare osoa gizartearen aurrean erantzuleak diren inbertsio-irizpideei jarraiki inbertitzen da
- **Urte amaierako kanpainak** pizgarri eskaintza zabala eskaintzen du, baita lekualdaketetarako, plan berrietarako eta ekarpenetarako opariak ere

2019ko urriak 28. Kutxabankek hasiera eman dio urte amaierako aurrezki-aurreikuspen ohiko kanpainari. Aurreikuspen produktuetan ekarpenak egitea erabakitzen duten bezeroentzako eskaintza eta abantaila ugari ditu kanpaina horrek.

Kanpainak **opari** eta **pizgarri** ugari dakartza, lekualdaketak eta ekarpenak egiten dituztenentzat (**opari-katalogoko opariren** bat aukeratu dezakete-eta), nahiz Kutxabanken kudeatzaile komertzialek erabiltzen dituzten simulagailuak kontsultatzea erabakitzen dutenentzat.

Euren aurreikuspen-saldoak lekualdatzea erabakitzen duten partaideei dagokienez, % **3,5** arteko **pizgarria** lor dezakete, 5 urteko egonaldi-konpromisoa hartuz gero.

BGAE-etara egiten diren ekarpenak, oraindik ere, urtarokoak badira ere, gero eta bezero gehiagok erabakitzen dute **aldizkako harpidetza-kuotak** ezartzea. Izan ere, aurreikuspen produktu horietako partaideen **heren batek baino gehiagok** ezarrita dute aurrezki-ohitura errepikakor hori.

Kutxabankek hainbat urte daramatza bere bezeroei euren helburu eta betebeharrei doitutako aldizkako kuota ezartzek dituen abantaila buruzko informazioa ematen. Horretarako, **erretirorako aurrezki-simulagailuen** laguntza du, **txosten oso pertsonalizuak** egitea ahalbidetzen dutenak, bezero bakoitzaren ezaugarri zehatzetara egokituak.

Errentagarritasun sendoa

Baskepensionesez errentagarritasun historiko oso sendoa du, epe luzeko joeren eta horietara egokitzeko ahalmenen analisisan ardatzen den kudeaketa-ereduan oinarritua.

2019an, bizitza-zikloa gure gaman, bolumenaren arabera **errentagarritasun ponderatua % 6,94koa** da iraileko itxieran, profil kontserbadoreagoaren % **6,01** eta % **16,29**ren artekoa baita, azken hori inbertsio-epe luzeagoetarako diseinatua.

Azken hilabeteetan hazi egin da Finantza-taldeak banakako aurreikuspen-planen merkatuan duen lidergoa. Gaur egun, Baskepensiones BGAEk % **47tik gertu dagoen merkatu-kuota** du, eta sektorearen hazkundera lideratzen jarraitzen du, harpidetza garbi positiboekin.

Aurreikuspen-produktuen arloko Kutxabanken apustu handienetako bat **plan profilatua** dira. Iraunaldiaren eta bezero bakoitzaren arrisku-profilen arabera diseinatzen diren planak dira, eta talde espezializatuek jarraipen profesionala egiten diote.

Gainera, kudeatutako produktu guztietan egiten diren inbertsio guztiak **gizartearen aurrean erantzuleak diren irizpideei jarraiki** garatzen dira. Horrela, inbertsioak egiteko aukeratzen diren erakundeek, euren jarduera-eremuetan, Giza Eskubideen errespetua, ingurumenaren zainketa, Gobernu Onaren Politiken praktikak eta arlo fiskaleko praktika onak betetzen eta sustatzen dituztela ziurtatzen da.

Konpromiso hau Kutxabank Gestiónen estrategia orokorraren barruan dago, eta gizartearen aurrean erantzulea den kudeatzailea izatea erabaki du.

Taldearen inbertsio-fondoak eta pentsio-planak kudeatzen ditu Kutxabank Gestiónek eta Nazio Batuen **UNPRI sare globalari** atxiki zitzaion 2017an. Inbertsioen analisietan eta erabakiak hartzeko prozesuetan ingurumen, gizarte eta erakunde-gobernantza irizpideak erabiltzen diren ebaluatzen du sare horrek.